

Nafarrkaria

Nafarrokako gehigarria / Ostirala, 1992ko abuztuak 14 / II. urtea / 37. zenbakia



Jauregi zahar baten itxura berria

Arraiozko Jauregi Zar eta Donamariako Jauregi-zarra ondare historiko izendatzeko txostena zabaldu zuen joan zen ekainean Nafarroako Gobernuak. Zutik dirauten bere motako bakarrak Nafarroan, bi dorre eder hauek garai

batean ohizkoak izan ziren jauntxo eta herrien arteko gatazkak dakartzate gogora.

Lehendabizikoa egun berritze prozesuan dago, eta goitik beherako aldaketak

egiten ari dira, soilik kanpoaldeko harria eta zutoinak utzi bait dira zeuden bezala. Jabe berriek, Bianako Printzearen teknikarien begiradapean, barrutik hustu eta distribuzio

berria egin dute etxean, eta duela gutxi erortzeaz zegoen beste garaiko jauregia, egun etxe dotore eta berritua da, oraindik bukatzeko lana gelditzen bada ere. Haize berriak Ursuaren jauregi zaharrarendako.

Amen eta omen



AINGERU EPALTZA

Lanera itzuli naiz, goibel. Nere inguruan ez du jadanik inoren **larrugorriak nabartzen** hondartza **arrearen** harea. Kanpoan, eguraldi **berdea** da, zipotza, uda bitxi honetan bizi izandako iruzki **zuriaren** ahanzte-razle. Ez naiz oroitzen zein idiotari leitu edo aditu diodan oporretan irakurtzea asperduraden marka dela. Iluna ala argia zen Orixeren paleta?

Lanean berriz, mutur **beltez**. Lantokiko liburu **berdeak** arakatu beharrez, esku **zuri** nagiak lanari gogorik gabe emanak. Alferkeria. Mando **urdinak** jo nauela erran liteke. Berehala, **agorrilak** mendi-larreetan bere lana egitearekin, **histuko** da nere larruazal doi-doi **belztua**. Eta orduan, karrikan barna paseatzen diren bisai gazte **zuri-gorriek** baizik ez dute argituko nere begitartean tonalitate **ozpina**. Hilabetez irakurritakoaren oroitzapena, horixe suizidioa bazter uzteko armarik eraginkorra. Nola margotu zituen Lizardik bere udazkenak?

Oporretatik bueltan, gogo txarrak aurpegia **horitua**. Paper **zuriak** zikindu behar sos **gorrien** truke. Beharbada egin beharrekoaren partez, koplak **nabarren** bat gogoratuko zait, **beltzuriaren** estalki. Esperantzaren **berde** harrotza. Finean, hainbat hobe izanen da beroaren patxadaz irakurritakoari berriz ere hotean ekitea. Inork bereganatu ote du Miranderen pintzela?

Mahai gainean **horitzen** ari zaizkidan lanei ihesi, lantokiko leihotik begira nago. Uste baino abudoago etorriko da negu **gorria**. Nahi baino lehenago, arrontik **belztuko** da lurra, ilajearen gisa ezariz ezarian **urduinduko** bihotza. Ordukoz bestondo baizik ez da izanen, agian, Patziku Perurenak, koloreetan barna burutu duen bidaiarekin, sortarazi didan liluraren mozko-rraldia.

Barnean

OPORRAK



Etxe trukaketa: kanpoan etxean bezala/vii

GARRAIOBIDEAK



Etxegarate zabaltzea 'premiatzkoa' Altsasuko alkatearendako/viii

Gure aukerak

Mendaurren azpian

DANTZA

Carmen Cortesen dantza taldeak Iruñeko Gaiarre antzokian 'Cantes de ida y vuelta' deritzan muntaia taularatuko du heldu den igandean, hilak 16, Iruñeko Gaiarre antzokian, Nafarroako Jaialdien eskutik.

MUSIKA

'**Kojon Prieto** Azabache y los Guajalotes' mexikar musika talde iruindarra gaur eta bihar—hilak 14 eta 15— Uskartzan (Zaraitzu) izanen da, gaueko hamabietatik goizaldera arte luzatuko diren kontzertuak eskeintzen. Uskartzan aritzeko prestakuntza berezia egin dute Guajaloteek, eta guztira hamabost 'mariaxi' iruinshe arituko dira 'Eskroto' taldeko abeslariarekin batera.

Locatelli hirukoteak eta P'an-Ku-k 'Haria eta perkusioa' kontzertua eskeinitako dute heldu den astelehenean Zangozako Salbatzailearen Elizan. Kontzertua arratsaldeko zortziretan izanen da, Nafarroako Jaialdiek antolatuta.

'**Aubade**' haize boskoteak eta 'Madrid Brass' metale boskoteak, 'zur eta metalak' izeneko kontzertua gozatzeko aukera emanen diete datorren asteazkenean, hilak 19, ilunabarreko zortziretan Zangozako Salbatzailearen Elizan.

ERRAN DUTE

«Hemen zaplastekoz ikasten da, eta hala ere inoiz ez da nahikoa».

Miguel Gonzalez

Aintzinatekerien presidentea

«Ikasle askok ez ditu bere lanak erreparatzen, eta hortik datoz komeriak».

Gerardo Castillo

Irakaslea

«Francoren garaian eliza bere independentzari eusten saiatu zen».

Francisco Verdera

Historiagilea

«Mueseko igeritokian gertatutako SOS Navarraren errua izan da».

Mueseko bizilagunak

Festak izanen dira astebeiruhonetan Zubietan, eta bertara bakarrik ihauterietan, ioaldunak ikustera, hurbiltzen direnei, esan festetan ere badakitela giroa berotzen zubietarrek. Ioladunak eta guzti gainera, kalez kale arituko bait dira festetan ere.

Zubietako etxe ederrak ez ezik Ezkurra ibarraren gainetik dagoen zubia eta San Antonio ermita dira bisitatzekoak. Baina arkitektura eta monumentuek bakarrik ez diete bisitariei lilura ekarriko, bertan dirauten artisau eta giro onak baizik.

Iturenen Sagardiaren jauregia da ederra oso, eta San Joaquin eta Santa Anaren ermitak, Trinitatekoa deritzana ahaztu gabe. Hau dago Mendaur mendi famatuaren puntan, zonalde osoko erreferentzia eta topagune festa eta erromerietan. Igoera polita da eta bertatik Bertizarana eta Basaburuaren gaineko ikusmira ederra antzeman daiteke. Horra joateko Sunbillatik ere egin daiteke bi-

learen Elizara hurbiltzen direnei.

Anje Duhaldek Goizuetan abestuko du datorren larunbatean, hilak 15, gaueko bederatzietatik aurrera. Kontzertua herriko pilotalekuan izanen da.

ERAKUSKETAK

Ander Hormazuriren graba-



dea, eta Iturendik ateraz gero, Mendaurreko urtegitik igarotzen da.

Hain famatua da mendia zo-

doak Iruñeko 'Lacava' kafe-galerian ikusgai izanen dira abuztuaren 30a arte. Hormazuriren erakusketarekin, Lacavako arduradunek amaituzat ematen dituzte udako oporrak, eta berriz ere lanari ekiten diote.

Jabier Morenoren 'Troiaiko biztanle madarikatua' eskultura efakusketa abuztuaren 21a arte Nafarroako Aurrezki Kutxaren Iruñeko erakustaretoan izanen da. Erriberan jaioa, egun Leioako

naldean, ezen apostuak ere maiz egiten ohi dira nork lasterrago igo puntara. Markek bat baino gehiago harrituko lukete!

Arte Ederretako fakultateko euskara adarran klaseak ematen ditu Morenok. Amaiurko Gaztelu kaleko erakustaretoan izenik gabeko zurazko eskulturak paratu ditu Arte Ederretako irakasleak, aipatutako 'Troiaiko biztanle madarikatua' izenburu orokorraren pean.

Rafael Ubaniren margoak Bertizko jauregiko hormetan eskegita izanen dira irailaren 15a arte. Urte franko eman du iruinseme

honek atzerrian erakusketak paratzen, eta Nafarroara itzuli baino lehen egin zuen azkena, Londreseko Alexandra Palacen izan zen ikusgai.

ANTZERKIA

Isabel, tres carabelas y un embaucador' Dario Fo-ren antzezlan taularatuko du gaur eta bihar—hilak 14 eta 15— Valencian Generalitateko Talde Dramatikoak Erriberriko Nafarroako Jaialdien aretoan. Bi emanaldiak ordu berean hasiko dira, gaueko hamarretan hain zuzen ere. V. Mendaurrenaren ospakizunek gaurkotatuna eman diote Dario Fo duela 27 urte idatzitako obra honi. Obrak galtzaileen ikuspegitik aztertzen omen du konkistaren historia, valentziar taldeko kideen esanetan.

'**Axioma teatro**' taldeak 'musika tren' deritzan muntaia antzeztuko du Zangozako Udaltxean datorren asteazkenean, hilak 19, ilunabarreko zortziretatik aurrera, Nafarroako Jaialdien eskutik. Antzezlan honek hiri handi bateko bi pertsonai tipiko eta kontrajarrien istorioa kontatzen du.

'Clochard' izeneko obra taularatuko dute 'Grappa Teatreko' kideek Zangozako Labrit zinemaren Emankizuna Nafarroako Jaialdietako egitarauan Zangozako iragarritako ekitaldien barnean kokatzen da.

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9etatik 10etara... Xinguli Mangulu haurrendako saioa.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... Karakola segi hola gazteendako saioa.

HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.9

Asteazkenean FMn 21.00etatik 22.00etara... Gautxori irratisaio musikala. Narrazioak.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazkenean zehar 20.30etatik 22.30etara... Zuri eta Beltz Elkarriketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazkenean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

ASTEKO PERTSONAIK

Martin Landa



Iuko bozeramalea

A txitarteko pasabidean auto-abideak eginen duen ibilbidearen aldaketak egiteko bidea zabaldu zion joan den asteartean IU taldeak Alliren Gobernuari. UPNko batzorde eragileak baldintza bakarra paratu zion Gobernuari aldaketak Parlamentura eramanez ahal izateko: EA eta IUK bermatuta izatea, eta lehendabiziko taldeak oraindik ofizialki bere jarrera azaldu ez badu ere, IUK baietza eman zion Gobernuari aurkeztutako txostenari. Landa bozeramaleak azaldu zuenez, «eragozpen teknikoek emandako erantzuna» izan zen baietza ematera bultzatu zutena.

Francisco Garmendia



Artzapezpiku laguntzailea

Lazkaon (Gipuzkoa) jaioa, eta Argentinan aritu ondoren 1987tik New Yorkeko artzapezpiku laguntzaile den Francisco Garmendia izan zen joan den asteartean Lizarran, Santa Clara-komentuan bizi den bere arreba bisitatzen. Garmendia Amerikako hainbat lekutan dauden apez euskaldunen artean ezagunenetakoa dugu, bere kargua dela kausa, eta bere lana hiri erraldoian dauden hispaniarrei laguntza eta hezkuntza ematea da, bertan aurkitzen duten giro arrotza eta zaila egokitu ahal izateko.

Felipe Sahagun



Kazetaria

Nork agintzen du munduan? Nizeneko ikastaroaren zuzendaria, kazetari madrildarrak aditu askoren partaidetza lortu du Nafarroako Jaialdietan antolatuta den ekitaldi nagusienetakoan. Felipe Sahagun Nazioarteko Harremanetan irakasle titularra da Madrilgo Unibertsitate Konplutensean eta TVEko Nazioartea sailako erredaktorea da. Berak 'SESbaren bukaera eta nazioarteko antolamendu berria' izeneko mintzaldia eman zuen, eta Juan Antonio Sacaluga, Mariano Aguirre eta Rafael Canduchen partaidetza ekarri du Iruñera egunotan.

Aurrekontu eskasa Burlatako jaietan

A.AGIRREURRETA / IRUNEA

Ez dira jai egitarauan diru asko gastatzeko garairik onenak. Burlatan zuhur jokatu nahi dute, premiazko beste behar batzuk somatzen direnean. Jaiak alaitzeko dirua ez da funtsezkoena. Kanpotik kontratatzen ziren ohizko hainbat ekitaldi ezabatu da egitarautik, erraldioak esate baterako. Herrian mugitzen diren hainbat elkarte kulturelek eskeini dezaketenen alde egin dute apostu.

Jaien antolatze lanetan iharduten duten talde eta Udaleko arduradunen artean akordio zabala izan da, beste urtetan ez bezala. Zinegotzi batek aipatu duenez, «komunikazio bideak handiagoak izan direlako». Zailtasunen aurrean denok bat.

Umeen egunak gauza berri asko aurkeztuko du aurten. Alkate eta Zinegotzi txikiak ez dute aspertzeko denborarik izango eta

udalbatza txikia San Juan elizara hurbilduko da meza nagusia entzutera. Eguneko animazio lanak Burlatako antzerki talde gazte baten ardura izango dira.

Lehiaketarik, edonolako lehiaketarik, ez da faltako Burlatan. Igande arratsaldean nafar jotzen zortzigarren lehiaketa egingo da, eta astelehenean, Intxautia Parkean, kalderete txapelketan partehartzaileen abileziak neurtuko dira. Sukaldaritza zaleek beren errezeta eta formula ezkutuak erabiliko dituzte astearteko probarako, eta edariak gustokoagoak dituztenentzat, azken egunean, koktel lehiaketa.

Herri kirolei dagokionez, saio bikainak prestatu dituzte. Asktasuna pilotalekuan Julián Retegi Txapelketaren finala jokatu da larunbatean. Harrijasotzaile eta aizkolariek ere ez dute hutsik egingo. Aste hasierarako Migeltxo Saralegiren bisita espero da.

Goizueta: Dena prestu Ama Birjinaren festetarako

A.A. / IRUNEA

'Umore ona' elkarteak udaltekoko arduradunekin batera egitarau aberatsa prestatu du egun hauetarako. Bezperan hasiko dira ekitaldiak. Eguerdian, itxaferoa jaurti eta era berean musikak egingo du eztanda. Dantza ez baina lasterka ibili beharko dute arratsaldean futbol partiduan parte hartuko duten emakumeek. Goizuetako neskek etsai indartsu bati egin beharko diote aurre: Añorga futbol taldeari. Ama Birjinaren bezperari dantzaldiarekin emanen zaio amaiera, dagokion moduan.

Bezperako ajea gaintzeko, goizeko zazpietatik aurrera Tolosako dultzaineroak ibiliko dira kaleetan. Lehen entzierroan parte hartuko dutenek dultzainaren

soinuaz berotzeko aukera. Eguerdian eskuz binakako partidua interesgarria egongo da herriko frontoian. Balerdi eta Lasa IIIk, Apezetxea eta Mariezkurrenaren aurka jokatu dute. Kirolzale eta apostuzaleek badute Goizuetako jaietan zeregin.

Kontzertu saio berezia Gazte Asanbladak antolatuta duena. Anje Duhalde kantari lapurtarrak, betiko doinuez gain azken diskoan agertzen direnak ere abestuko dizkie goizuetar guziei. Kantari ezagunak jende kopuru handia bilduko duela espero dute Asanbladakoek.

Goizuetako gazteak eta Baztango bi talde norgehiagoka ibiliko dira igande arratsaldez. Ez dute edateko ahalmena neurtuko. Hori txapelketaren ondorako utziko dute.



Asauak Etxalarren

A.A. / IRUNEA

Herri kirolak eta asauak dira Etxalarko jaien mamia, aurten ere. Jakina, kiroltan ihardutea ez da huskeria eta ondo jatea funtsezkoa da. Lehen egunerako, ortziralerako herri afari bat antolatu dute eta 150 lagunentzako partehartzea espero dute, iazko arrakasta ikusirik. Jan saioak ez dira hor amaitzen. Igandean hurrek beren 'asau ttipia' ospatuko dute. Haragia makiletan sartu eta su bi-

zian erreta, entsalada oparo batez lagundurik: menu berezia Etxalarko umeak hazi daitezten. 'Asau egunean', asteartean, Santakruzko zelaian egingo dute topo etxalartarrek. Kanpotar guztiak ere gonbidaturik daude. Menua umeek izan zutenaren berdina baina ez kantitatean.

Herri kirola ere izanen da bertan, eta sokatiraz gain pilotazaleek izango dute zerikusia. Astelehenean Errandonea eta Almandoz Otxoteko eta Urrutiare-

kin neurtu dira. Eta bertakoak ere urtean zehar pelota kontutan saiatzen direnez, asteartean beren maila agertzeko aukera izango dute. Palaz arituko dira neskek, mutilak eta baita haurrak ere.

Larunbatean, Lizaso, Egaña, Euskitze eta Muruak, gajartzalearen —Manolo Arozena— aginduetara, irudimena landu beharko dute. Inguruetako herrietan antolatzen direnak ikusirik, arrakastatsu izanen da saioa.

Zubietan ioaldunak

A.A. / IRUNEA

Andramari bezperan hasiko dira jai kontuak Zubietan. Ostiral gauerako dantzaldi bikaina prestatu dute: Tapia eta Leturia trikitilariekin girotutakoa. Indartsu agertzen da egitaraua lehen egunetik.

Eta ioaldunak, zintzarren hostaz, kaleko giroaz arduratuko dira. Larunbatean goiz goizetik kalejiran ibiliko dira. Lizaso eta Egaña zain egongo dira herriko frontoian bereak egiteko. Arratsaldean, Zubietako astoen orduan, lasterketan, barre egiteko aukera paregabea izango da.

Herri kirolek izen berezia dute Zubietan. Igandeko emankizunak izan ohi dute arrakasta handiena. Goizalderako pilota partidua eta arratsalderako aizkora apostuak.

Jaien azken txanparako Herriaren Eguna utzi dute: herri bazkaria, bertso saioa eta musika.



Goizueta.

Arraiozko jauregizar

Arraiozko Jauregi Zar dorretxe ederrak beritze lanaren ondorioak hasiak ditu aspaldian somatzen, eta kanpoaldetik duen itxurak ez dauka zer ikusirik duela gutxiokarekin. Aurpegia eta oinarria garbitu dizkiote, eta bere motakoen artean Nafarroan zutik dirauen bakarra —Donamariakoarekin batera— etxebizitza 'arrunta' bihurtu da, urte luzez Baztango izen ospetsuenetakoa jauregia izan ondoren. Gutxi barru ondare artistiko izendatuko du Gobernuak, horretarako txostena zabaldua bait da dagoeneko, baina, Vianako Printzearen erakundearen begiradapean, aldaketak jasan, jasan ditu etxeak birjaiotze honetan.



Jauregizar berria

A. BARANDIARAN / ARRAIOTZ

Mugaire-Oroztik Elizondora joanda, Arraiotz da Baztan bailarako lehendabiziko herria. Bertatik igarotzerakoan, ezkeraldera, nabarmena da bertan dagoen dorretxea, duela zenbait urte zaharkitu eta hondatuta, eta egun berrituta eta itxura berriaz jantzita. Ohore handia benetan etxeak inon baino zainduago eta dotoreagoak diren inguru batean.

Betidank Baztan osoko sinboloetako bat, Arraiozko Jauregi Zar, Irurita, Bertiz eta Zozaiakoekin batera, Nafarroan mota hauetako dagoen bakarra da, Donamariakoekin batera. Hain zuzen ere, aurtan Nafarroako Gobernuak ondare kultural historikoa izendatzeko txostena zabaldu die bie, eta azterketa historikoa egin dago.

Ursua izen eta abizen famatuaren familiatokia, duela bi urte hona aldatu zuen eskuz eta jabe berriak hasi du dorretxearen berritze prozesua, luze gabe amaizuta egongo dena. Hasiaren ametsa zena, proiektu ederra, azkenean zailtasun handiko lan bihurtu da, askoren adituen partaidetza behar izan duena.

Lanak ez dira errezak izan, eta arkitekto eta paratzaile frankoren iritzia jaso da bertan, gaur egungo etxebizitza eta ondare historiko baten arteko lotura eta oreka ziurtatzeko, ezeren kalterako. Izan ere, Bianako Printzea era-

kundea eta jabeek kontratatutako adituen arteko adostasuna lortzeko ez omen da arazo handirik izan, baina garbi dago etxe berria dela Jauregi Zar, ondorio guztiekin.

GOITIK BEHERA BERRERAIAKIA Lehendabiziko momentutik garbi azaldu zen dorretxea goitik behera berreraiki beharra zegoela, eta soilik harria, oraindik egoera onean, eta oinarriko zutoinak bertan uzteko modukoak ziren. Izan ere, urte guzti hauean, eranskina, XVII mendekoa dena, izan da benetan zaindu dena, eta dorretxearen egoera gero eta kaxkarragoa izan da azken urteotan, bizilagunen axolagabakeriak bultzatuta, hein batean. Hainbeste, ezen, lanak hasi ezean, dagoeneko orria izango zelakoan daudela adituak.

Proiektua, beraz, Bianako Printzea erakundearen aurkeztu zuten arkitektoek, eta onespena jaso ondoren, ia zoko irailan hasi ziren lanak. Horretarako, irizpide garbiak izan dira: jatorrizko ahal den guztia errespetatu, baina etxebizitza baterako oztipo edo traba izan daitekeena aldatu. Distribuzioa, kasu, guztiz berria da, eta dorreko kanpoko itxura gorde bada ere, zenbait leiho berri zabaldu da, argitasun handiago lortu asmoz.

Teila ere berria da, eta hori da kanpotik gehien nabarmentzen dena, inguru osoan ohizkoa den

kolorearekin bat ez bait dator. Egurra Frantziako erdialdetik ekarri da, haritza bera, eta dorrearendako gaztainondoa. Zenbait harri ere berriro zizeldu egin behar izan ziren, egoera kaxkarraren zeudelako. Zutoin batzuk errespetatu ziren, esan bezala, baina dorrea metro t'erdi altuagoa da, altxatzearen ondorioz. Dorrearen kanpoko egurra ere berria izatean, eta oraindik paratu gabe baldin badago ere, kanpoko

itxura aldatu du zertxobañ, baina urte batzuen poderioz ohizko kolorea hartuko duelakoan daude jabeak.

Orain, baina, askoren jakinmirari aurre egin behar izango diote, Jauregi Zar ez bait da etxe arrunta, ez behintzat begiratu gabe bere ondok pasatzearen horietakoa. Garbi dute baina: «Hau gure etxea da, eta jendeak ulertu egin beharko du. Ez da museo bat izango».



Dorre eta eranskina bat eginda daude gaur egun eta 1530 aldera ezarri zen harria da denboraren poderioz hobekien jasan duena. Harri batzuk, baina, berriro zizeldu egin behar izan zituzten.
A. B.

Etxebizitza eta ondarea

A. B. / IRUNEA

Arraiozko Jauregia luze gabe izendatuko du Nafarroako Gobernuak ondare artistiko, horretarako txostena martxan bait da dagoeneko. Prozedimenduari hasiera emateko erabakia duela zenbait hilabete hartu zuen Nafarroako Gobernuak, eta egun berean Donamariako dorrearena ere —Arraiozkoaren tankera berekoa— onetsi zuen exekutiboak.

Hain zuzen ere, Nafarroan dauden mota horretako dorre bakarrak dira aipatutako bi hauek, hau da, egurrezko kadalsoa —dorrearen inguruan doan pasiloaren antzekoa— dutenak. Hori gehitu egin behar zaio urteko eraikinei ematen dieten garrantzia eta sona. Data zeharo zehatzik eman gabe ere, XIV mendean erdialde inguruan zehatu dute ikertzen ihardun duten adituek.


Interes artistiko duena sailkatzeko zenbait izendapen desberdin dago: altzaria, ondarea, toki arkeologikoa, inguru historikoa, zer denaren arabera. Hori lortzeko, lehendabiziz txostena zabalitzen da, eta ondoko pausoa azterketa historikoa osatzen da, ondarearen benetako balioa zehatz-mehatz ezagutu ahal izateko. Behin frogatu horiek bilduta, izendapena ofiziala egiten da. Orduan, ondareak onesten ofiziala dauka bereganatua, 16/1985eko Espainiako legeak agintzen duenaren arabera, eta Nafarroako Gobernuak, kasu honetan, eraikina babestu beharra.

Arraiozko Jauregi Zarren kasuan, Javier Sancho Nafarroako Gobernuko Ondare Artistiko Zerbitzukoak azaltzen duenez, estruktura eta kanpoaldeko itxura gorde egin da, eta soilik barrualdeko distribuzioa izan da al-

datu egin dena, «jabeek zituzten nahien arabera». Aldaketa hauek, baina, «ez dute batere aldatzen eraikineren garrantzia», Sanchoren esanetan, «irizpidea gaur egungo etxebizitzak dituen beharretara egokitzea izan bait da». Eraikina osoan zehar zegoen egurra ez da ia ezertan aprobetxatu ahal izan, baina ondoren paratu diren ohol eta hesiek osaketa eta neurri berdintsuak dituzte.

Nafarroako Gobernuaren Zerbitzu hau beste dorre baten txostenaren lanak egiten ari da gaur egun, ondare artistikoa ere izendatu ahal izateko. Longidako Aiantzen dagoen jauregia da orain aukeratua, gaztelu antza handiagoa daukana.

Etxe hau izan zen XV mendean Bianako Printzearen leialtasun zorrotzetakoa erakutsi ziona. Ondoren Vessollako markesari aitxiki zitzaion Aiantzeko jauregia.



Etxea barrutik hustuta, soilik harria eta zutoinak mantendu ziren. OTERO

Martin Ursuakoaren etxea

A. B. / IRUNEA

Nafarroan, eta bereziki Baztanen, jauntxo eta gizon boteretsu franko zegoen garaian eraikia, historiarekin ere lotura berezia dauka Arraiozko jauregi honek, Ursua familia ospetsuaren etxea izan bait zen mendeetan zehar.

Bere eraikitze data ez da oraindik zehaztu ahal izan, baina XV mendekoa da ziurrenik. Hala ere, egurrezko eraikina aurretik egongo zen, baina gero, 1490 aldera, harritzko zatia eraiki zen.

Martin Ursuakoa pertsonaia ospetsuaren aitona izan zen jauregia berreraiki zuena, eta 1530 aldera, Martinek berak orain egin denaren antzeko lana egin zuen: dorrea barrutik hustu, eta egurra aldatu. Orduan paratu zen egurra izan da, hain zuzen, orain kendu berri dena, usteldua jada.

Martin Ursuakoa 1480an jaio zen bertan. Pertsonaia honen bizitza garai hartan Nafarroak jasan zituen gertakariekin biziki lotuta dago, Fernando Katoli-



Dorrearen jatorrizko zutoinak.

XABI OTERO

Amaiurko gazteluaren atea

A. B. / ARRAIOTZ

Martin Ursuakoa izan zen Jauregi Zarrek izan zuen bizilagun famatuenetakoa. Fernando Katolikoak 1512an burutu zuen konkistaren defenditzaile sutsua, partehartze zuzena izan zuen garai hartako guda guztietan, eta Baztandik kanpo ere aritu zen, beti inbasoreen morroi: Hondarribiko konkistan, esate baterako.

Baina Amaiurko gazteluaren konkistan izan zuen betekizuna eman zion ospea eta izena, mendeetan iraun duena. Han egindako lanaren ordainean, Amaiurko gazteluaren atea eta lombarda bat eman zion erregeordeak, eta urte luzez Jauregi Zarren egon ziren. Egun kainoia ez dago, baina atek bertan dirau.

Amaiurko gazteluaren hondakinekin ermita eta etxe franko egin zen, egin ere, Baztanen. Sobrante zegoen harriareki eliza eta apaizetxea egin ziren eta gainontzekoekin hesiak eraiki ziren.

mintzoak

Legateko Gurutzea

● Legateko Gurutzearen Kondaira 1901garren urte-tik dator. Urte hartan Lekarozko Kaputxinoek Aita Llevaneras buruzagi zelarik, eraiki zuten Gurutzea eta maiatzeko hilabetean bedekatu zen Elizkizun hungigarria eginik. Hor omen ziren Lekarozko erretore jauna Juan Istitart meza emaile eta Krisostomo jauna Elizondoko erretorea predikari. Aralarako Migel Aingeruaren Iduria ere hor omen zen ospakizunari ohore handia emanenez, egun gogoangari haren lekuko bezala. Elizgizon aunitz eta hainbertze kristau baztandar Gurutzearen inguruan. Gurutze haundi hura harrizkoa zen eta ongi landua, baina ekaitzak, aide-gaixtoak, haize bortitzak eta urteak ere ondatu zuten gurutzea eta azkenean haize ukaldi indartsu batek bota zuen lurrera, dena puskatu eta ondatur. 1901tik 1977ra iraun zuen gurutzeak. Baztandar kristauak elkarturik eraiki zuten gurutze berria eta oraingo burdinezkoa. 1979ko abuztuko lendarbiziko igandean egin zen Gurutzearen bedein-

kazioa, eliz besta hungigarria ospatu.

Hor gintuen Iruñeko Artzapezpikua Zirarda Jauna, Argaia Gotzai Jauna eta Aita Karlos gure Aintzindari. Oraingoan ere Aralarako Migel Aingerua hor ginuen. Jende aunitz bildu zen egun hortan, milla lagun eta gehiago hain segur. Gerotik urtero urte eta abuztuko lenbiziko igandean ospatzen dugu Legateko Gurutze berriaren urteburua, aurtengoarekin hamahirugarrena.

Joan den igandean abuztuko bigarrenan, ospatu ginuen elizkizuna, beti bezala lehenik Kalbarioak eta ondotik Meza Gurutzearen ondoan. Beti bezala Aita Karlos Meza emaile eta Aintzindari eta yende aunitz Gurutzearen inguruan, gazteria ere bazen eta horrek pozten gaitu. Egurraldi ederra izan ginuen eta egote atsegingarria Legate gallurrean. Ohitura hunek iraun dezala eta Gurutzeak zaindu gaitzala.



Mariano Izeta Erlojularia

Gazteendako Zokoa

Okil beltza

Dryocopus martius

Baso handietan bizi ohi da Nafarroan soilik Pirinio-tan. Larbak dira bere elikagaia.



Txapel gorria buruan

Erraza da okil beltza ikustekoan okil berdea, okil haundia edota beste okil moztengandik desberdintzea. Arraren kasuan, buruko luma gorriek txapel baten antzeko zerbait osatzen dute; emearen kasuan ordea, luma gorriak txoriaren lepoan marratxo bat besterik ez dira. Heldua denean, marfilezko moko txurixuria, luma beltz-beltzak eta hanka nabarrak izaten ditu.

Bere kanta ez da nolanaikoa. Txori honen 'kri-kri-kri' bereziaren oihartzuna basoko txokorik izkutatuenera ailegatzen da, gainontzeko okilei bere indarraren berri emanik. Mokoarekin kolpeka, zuhaitz zaharretan topatzen dituen zizaretxoak dira nahiago duen elikagaia, baina sarritan lurrean, txingurrien habietan bilatzen du behar duen sustengua. Bere tamaina dela eta —heldua denean belabeltz batea bezalakoa— zulo handiak egin behar ditu zuhaitzetan habia bertan paratzeko (20 zentimetrotako diametrokoak hain zuzen ere). Hori dela eta baso zahar eta zabaletan bizi da.



Mikelen gezurrak

XABIER GORRITXO
8. maila. Lizarrako Ikastola

hura. Jaiki bezain pronto a ze bihurrikeria bururatu zitzaion:

— Amatori itsutu naizela esango diot. Dena ondo ateratzen bazait ez naiz ikastola zahar horretara joan beharko.

Bururatu, eta baita egin ere. Amari negar zotinka oihukatu zion:

Ama, ama! Non zaude? Ez dut ezer ikusten! Itsutu naizela uste dut.

Ama bere semea itsututa zegoela eta, erabat larritu zen. Tris-tras batean telefonoa hartu eta ospitalera deitu zuen. Eskua dantzan, eta ahotsa trabatuz, ahal anbulantzia iritsi zen. Laister, izugarritzko iskanbila ateratzen anbulantzia heldu zen. Txuriz jantzitako bi medikuen artean Mikel kamilan jarri zuten. Mikelek arnasa estututa sekulako zarata ateratzen zuen, eta eskuak begietara eramaten zituen mina emango baliote bezala.

Nork esango zuen gezurretan ari zela? Hain ondo egiten zuen papera. Anbulantziaren atzekaldean sartu zuten Mikel, eta ondoan bere ama jarri zen bere burua laztantzen. Bitartean Mikelek sufrimendu aurpegia jartzen zuen. Baina ustekabean Mikelek hanka ederki sartu zuen.

— Ama, ama! Begira, aita-txoaren kamioia!

Ama Mikelek zirra sartu ziola konturatu zen. Ikustekoa zen bere kopeta beltza txoferrari ikastolara joateko esaten zionean. Ondoren, Mikel ederki astindu zuen, bronka galanta botatzen zion bitartean. Mikelek ez zuen ezer esan, eta tomatea baino gorriago jarri zen. Anbulantzia ikastolako atarian aparkatu eta gero, amak haserre bizian Mikal besotik ahartu eta klaseraino eraman zuen. Ate aurrean ipurdiko pare bat eman zizkion, eta bultzaka sarrarazi zuen. Mikel burumakur eta erabat lotsatuta bere tokian eseri zen. Andereñoak zer pasatzen zitzaion galdetu zionean, Mikel negarrez hasi zen.



BASAJAUN

Amazonia, tropiko zabal eta izugarria, lurbera osoan oraindik aurki daitekeen basorik handiena —sei milioi kilometro karratu bere zabalera osoan—, bere barruan espezie oraindik ezezagunak eta funtsezkoak bizitarako eta beste espezieen eboluziorako ere gordetzen dituen, % 8an gutxitzen da etengabe.

Horrelako kopuru izugarriak, beste arazo askorekin gehituta, lurran dugun birika izugarri hau akatuko du luze gabe, behintzat zerbait azkar eta efikaza egitea lortzen ez badugu.

Kondaietarako gelditu dira zenbait izen, gudari ekologista, beren bizitza ekologiaran alde eman eta dedikatu dutenak, ezereen truke, bakarrik natura eta ekologiarri zioten atxekimenduetatik. Hor dugu, adibidez, Palo Joanil aita, oihanen errekurtsioen erabilpen egoki baten alde lan izugarria egin duena. 'Handien' interesen aurka joateatik, bere borrokarekin bat zetozen zenbait lagun hil dute.

Zerbait egin beharra daukagu. Idatzi ezazu Amazoniaren aldeko batzordeari zerbait egiteko edo zure laguntza eskeintzeko. Euskal Herrian ere badugu gurea den bat.

Estatu Espainolean, bestalde, Amazoniaren aldeko Batzordearen helbidea hau da: Campanares, 13-18013 Madrid.

Elkarte honen kidea izan zaitez. Zure eskuan dago, beste hainbeste gauzak dauden bezalaxe, lurran dugun ekosistemarik handiena eta ezagunenaren etorkizuna ziurtatzea edota betirako hondatzea. Oraindik bada garaia zerbait egin ahal izateko.

Gogor ekin borrokari, merezi bait du.

KAZKARROAN

Mainueta

Bainuetxe zaharra inguratzen duten indietako gaztainondoetariko batean bihotz bat irudikatu zuten, bi izenekin, gaur lurretik hamaika bat metro-tara zintzilikatuta daudenak. Denbora igaro ahala, zerura jaso dira baina letrak, komedia haren berri zehatzak desitxuratu egin dira, halako amodio eredu unibertsala bihurtuz. Galeriatik ez du inork burua ateratzen, mundu honetatik aspaldian ospa egin zuen burgesia eri eta dadazale baten oroimenak baizik. Iturriari ur bedeinkatua alferrik dario. Azulejo arabiar batean kostata irakur daiteke 'Baños de donatorio'. Mende honen hasierako gaitzak sendatzeko gai omen zen, batez ere automobilekin sortzen zen abiadura beldurra. Aitzitik kotxek ehundik gorako abiadura lortzen hasi zirenez geroztik, badirudi urari gatz miresgarria ahitu zaiola. Dena botata dago eta teilak saldu zituztenetik, inguruak bonbardaketa eta geroko hormak ematen du. Hauexek dira Toribio Alvarez Pegenautek aurkitu zituen ondarrak. Pintzelak, oihalak, eta tresneria guztia atera zuelarrik, euria hasi zuen. Honekin hiru aldiz horra joana zen eta bere buruari agindu zion hura azken ahalegin izan zela.

JEREMIAS ERRO

BOSTEKO TTIPIAK

Zenbaki bakoitzeko hitz bakar bat eta bera

- Natura
- Ohar
- Herri nafarra
- Tua
- Gaiak

1	2	3	4	5
1		2		4
	2			
3				
	4			
5				

- Herri nafarra
- Zoratu
- Erabateko
- Itorik
- Irabaziak

1	2	3	4	5
1		2		4
	2			
3				
	4			
5				

- Herri nafarra
- Ereduzko zati
- Logura
- Metal preziatu
- Guztira

1	2	3	4	5
1		2		4
	2			
3				
	4			
5				

Zaharrak berri

Gure jainkoak urez hil dezala gure egarrie!

Mozkorrengatik esana

Oskotz (Imotz)

Denean ase, ez denean gorse.

Dagoenean bonbon ez dagoenean egon

Larraun

Aita seme-ari-klaseko kontuekin laguntzen:

—Ea, Joxe, sei sagar dauzkak eta hiru jaten dituk. Zenbat geratuko zaizkik?

—Ez dakit, aita, klasean beti laranjekin egiten ditugu kontuak.

Bizi Bizian

Mundutik ibiltzeko txapelaren orde- z zapi seme-alaba edukiz gero, opo- rrek hamaika buruhauste dakartzate. Non

igaro daiteke hilabetea patrikak hustu ga- be? Etxetik ez irtetea hobe, pentsatuko du norbaitek. Dublin-eko Murphytarrak zo-

rrotzagoak izan ziren, ordea, eta Leitza aldean aurkitu dute oporretarako txokoa, beraien etxea bezain goxoa eta merkea.

Etxe trukaketa: ni zurean, zu nirean

ANA UNANUE / IRUNEA

Bazterren batean beste norbai- tek antzeko arazoa izango zuela bururatu zitzaizen Murphytarren eta, hara non, Donostian aurkitu zutela erantzuna. Arrazola fami- lia ere oporretarako lekuren baten bila zebilen eta bidean topo egin zuten. Orain Arrazolatarrak irlan- darren etxean daude, Dún Laoghaire-n, Dublinetik zazpi kilometrotara, eta Murphytarrak, berriz, Leitza- n, donostiarrek ber- tan daukaten etxean.

Etxe trukaketa 'Intervac' aldiz- kariaren bitartez egin zuten. Jen- deak aldizkari horretan azaltzen du zer nolako etxea eskaintzen duen eta zeren bi- la dabilen. Iragarkia zortzi mila pezetan da—hamabi mila pezetan argazkia nahi izanez ge- ro—, eta aldiz- karia iragarleen artean banatzen da, Europa osoan. Hortik aurrera gertatzen dena iragarleen kontua da. Norberaren esku gelditzen da beste familiarekin harremanetan sartzeko eta, trukaketa bien gus- tukoa bada, tratua ixtea.

Trukaketa atzeritarrekin egi- tean, ados jartzeak bere denbora eskatzen du. Arrazolatarrak eta Murphytarrak, esate baterako, urtarilaz geroztik egon dira ha- rremanetan. Jose Mari Arrazolak Dublinetik kontatu digunez, opor- rrek prestatzea «izugarri po-

lita da, telefono deien eta eskuti- tzen bidez elkar ezagutzen goaz eta».


Arrazolatarrak (senar-emaz- tea, hiru alaba, aitona eta amona) «primeran» dabilta Irlanda al- dean. Jose Marik dioenez, «jen- dea oso atsegina da hemen, ez sinestekoa. Gaueko hamabietan iritsi ginen eta bati galdetu genion gure etxea non egon zitekeen. Bada, tipok kotxea hartu eta bertaraino ekarri gintuen. Eta atzo berdin, su- permerkatua non zegoen galdetu eta denek berta- raino lagundu nahi ziguten».

Sistema honi esker, Murphytarrak etxean bezala egon izan dira Estatu Batuetan eta Australian. Ameri- ketan izan zire- nean, etxea ezezik kotxea eta Visa txartela ere truka- tu zizkieten fami- lia estatubatua- rri.

Donostiar hauentzat etxe trukaketa ez da ezer berria, au- rretik beste hiru esperientzia izan dituzte eta. Siste- ma horri esker, etxean bezala egon dira Cardif- fen (Gales), Edinburghen (Eskozia) eta Ba- varian (Alema- nia). Sekula ez dute arazorik izan, ez besteen etxeetan ezta Leitza- n utzita- koarekin ere.

Aurtengoa hirugarren truka- keta dute Murphytarren. Aurre- neko aldian Estatu Batuetan izan ziren eta, etxea ezezik, kotxea eta Visa txartela trukatu zizkieten amerikarrei. Bigarrenean Aus- traliaraino joan ziren —ordu- an errazagoa egiten zitzaizen urrutira joatea, lau seme-alaba 'bakarrik' zituztelako—.

Roderick aitak dioenez, ga- rrantzitsuena beste familia alde-



Irlandarrek oso gustukoa dute Tellagorri etxea, ezkerretara. Arrazolatarrak ere gogokoa dute Dublineko etxea (behean). ANA UNANUE

aurretik ezagutzea da, «horrela arazoren bat izanez gero, badaki- zu norengana jo, eta auzokoekin harremanetan sartzeko errazago da». Leitza-ko auzokideek harrera ezin hobea egin diete dublinda- rrei eta dagoeneko bazkalostean elkartzeko konfidantza hartu dute. Gainera, herriko jaiak suer- tatu zaizkie opor egunetan eta segituan moldatu dira kaleko gi- rora. Patricia amaren iritziz, «beti ere atsegina da herritarrekin nahastea hoteletan atzeritarre- kin egotea baino».

Patricia zur eta lur gelditu da



leitza- rrek euskaraz egiten dutela ikustean. Beraien seme-alabek irlandaraz ikasten dute eskolan, baina handik kanpo ez dute era-

biltzeko aukerarik. Euskarazko egunkaria badela jakiteak ere har- rritu egin du: «Irlandan horrela- korik izango bagenu...».

Murphys' Leitza

A.U. / IRUNEA

Harritzeko makina bat gauza ikusi dituzte dublindarrek Lei- tza: zezenak plazan, pilotariak, euskal dantzak, beraiei izugarriak iruditzen zaizkien men- diak... Hala ere, «munduko gi- zonik indartsuenaren» alboan bi- zitzeak txunditu ditu gehien. Iñaki Perurena auzokide zutela jakitean, hurrek ezin zuten sine- tsi «'Guinness' liburuan azaltzen den norbait» bizi bizian ezagu- tuko zutenik.

Herriko jaiak direla eta, hau- rrekin nahasteko parada izan dute zazpi irlandarrek. Iragan igan- dean ospatutako Hauren Egu-

nean ez ziren gelditu ere egin. Jo- koetan parte hartu zuten eta zaldi txikien gainean ibiltzeko txanda- tu ziren, antolatzaileen aginduei kasu handirik egin gabe, euska- raz tutik ez bait zuten ulertzen.

Goizetan Pila- rrek ordubetez irakasten die gaztelera, hurrek «uno, dos, tres» ikastea oso gus- tokoa ez badute ere. Eskerrak ge- ro egun guztia duten nahi dutena egiteko. Leitza- n faltan botatzen duten gauza bakarra supermer- katua da. «Erosketak egiteko denda denda ibiltzea exotikoa izan daiteke gurasoentzat, baina niri nekagarria egiten zait», dio Rachel Murphy hamasei urteko alabak.



Mur- phyta- rrak Lei- tza-ko pla- zan. Rode- rick aita, Patricia ama eta zazpi se- me-alabak: Ra- chel, Roderick, Ruth, Andrea, Susanna, Cart- hiage eta Nuala. ANA UNANUE

Jose Manuel Goikoetxea

.....Altsasuko alkatea

«Etxegarate ez zabaltzea hankasartze historikoa litzateke»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

EGUNKARIA.— Udaletxeak noiz jaso zuen Eusko Jaurlaritzaren lehendabiziko ohar ofiziala autopistaren inguruko asmoari buruz?

JOSE MANUEL GOIKOETXEA.— Asmo hau aspalditik ezagutzen genuen udaletxean, eta Nafarroako Gobernuarekin hitz egin genuen duela zenbait hilabete, Maltzaga (Gipuzkoa) eta Urbina (Araba) artean autobidea egiteko proiektuari buruz. Berriak tarteka-marteka zetozen, jarraimendurik gabe, baina duela gutxi proiektua informazio publikora atera zuen Eusko Jaurlaritzak. Errepideetako Plangintza Orokorren aurrerapen bat da oraingoa, nahiz eta premia izan, eta bertan agertzen denez, lehentasuna ematen zaio autopista honi Nafarroa eta Gipuzkoa lotzen duen N-1 zatiaren aurrean. Horrela, Etxegarateko zabalpena, lau errailatara, hurrengo urteetarako utziko litzateke, hau da, Maltzaga-Urbina autopistaren ondotik, eta ez, inondik inora, 2000. urtea baino lehen.

EGUNKARIA.— N-1 orain zabaltzeak ez omen dauka zentzu handirik, betidanik Irun eta Madril arteko bide garrantzitsua eta Europarekin euskaldunon lotura izanik.

GOIKOETXEA.— Bai, dudarik gabe, horrela da. Egitasmo hau aurrera eramateak betirako zabaltzeko gaitu Europako ardatz nagusienetako horretatik, eta hemen horren kontzientzia garbia dugu.

EGUNKARIA.— Altsasu, orain, errepidetako lan handien —Sakanako autobidea, Gasteiztik da-

torren autobidearekin lotura— ardatza eta funtsa da. Etxegarate ez zabaltzeak eta N-1 Europako ardatz nagusi horretatik zabaltzeak, oso egoera berezian utziko luke herria eta zona, lehen mailako pasabidea izatetik bigarren mailakoa izatera pasako bait litzateke. Honek ez al lieke esanahia kenduko lan guzti hauei?

GOIKOETXEA.— Esanahi guztia ez lieke kenduko, baina esanahi askoz handiagoa dauka N-1ek, dudarik gabe, askoz trafiko handiagoko errepidea delako. Hau da, eta horrela iruditzen zaigu hemen, Altsasuko zabaltze historikoa. Nafarroako errepideen lanak aukeratu eta burutzerakoan ez da inolako lehentasunik ezarri, bestela N-1ean aspaldidanik egongo zatekeen laugarren erraila, logikaz.

EGUNKARIA.— Eta zein motako kontaktuak daude edo izan dira Nafarroako Gobernuarekin gaitu honi buruz?

GOIKOETXEA.— Udaletxea duela gutxi bildu zen Lopez Bordarias Nafarroako Gobernuko Herrilan kontseilariarekin, eta gure iritzia argi eta garbi azaldu genion. Horrez gain, zenbait alegazio aurkeztu genion N-1i buruz.

Bestalde, lehengo eguneko Altsasuko udalbatzan ere idazki batzuk bidaltzea erabaki zen, bai Nafarroako lehendakariari nola Herrilaneko kontseilariari, N-1a zabal dezaten. Halaber, Araba eta Gipuzkoako diputazioei ere N-lako zabalpena eskatuko zaie, eta Eusko Jaurlaritzari, berdin, garbi bait dugu erakunde guztiek honen garrantziaren jabe izan beharra dutela. Espainiako Go-

Eusko Jaurlaritzak Maltzaga (Gipuzkoa) eta Urbina (Araba) bitartean autopista bat egiteko plazaratu berri duen proiektuak kezka bizia sortu du N-1 errepideak zeharkatzen dituen Nafarroako herrietan ezezik baita Goierri eta Tolosal-

dean ere. Ez hainbeste autopista beragatik nola Etxegaraten laugarren erraila egiteko Gasteizko Gobernuak aitortu duen atzerapena dela eta. Honek, askoren ustez, bide historiko honen zabaltzea ekarriko luke, eta herri askorendako kalte.



Jose Manuel Goikoetxea.

OLALDE

bernuko Herrilan Ministeritzari (MOPU) ere eskatuko zaio oraingo ardatza bultzatzea, Europatik datorren zuzenena eta naturlararena delako, eta Tolosaldea, Goierri (Gipuzkoa), Lautada (Araba) eta Sakanako udal guztiei ere elkarlaguntza eskatuko zaie, erreibindikazio hauek aurrera eramaterakoan.

EGUNKARIA.— Baina zaila dirudi, kontutan hartuz martxan dauden autobideetako lanak, Nafarroako Gobernuak honi buruz interesatzeak edo behintzat

premiaren beharraz ohartarazteak.

GOIKOETXEA.— Garbi dago arrakasta izateko, kasu honetan, gauzak une egokian egin behar direla. Hau da, zabalpena azkar egin behar da, beste bide alternatiboak izan baino lehen. Gure ustez, Nafarroako Gobernuak lehentasuna eman behar dio lan honi, orain martxan edo proiektuan dauden beste guztien aurretik. Adibidez, trafikoaren garrantzia eta kopurua askoz ere handiagoa da hemen, Irurtzun-Andoain au-

tobidean baino. Eta honekin ez dut esan nahi besteak geldiarazi behar direnik, baina dudarik gabe, honen beharra ukazina da. Eta gainera premia izan, beste alternatiba bat hor bait dago, proiektuan, eta horrek urrunduko gaitu, nahitanahiez, Europatik.

Nafarroako Gobernuak lehentasuna eman behar dio lan honi, orain martxan edo proiektuan dauden beste guztien aurretik.

EGUNKARIA.— Eta premia honen kontzientzia somatu al duzue Nafarroako Gobernuan?

GOIKOETXEA.— Nafarroako Gobernuak, zenbait adierazpenetan, antzeman hal izan dudanez, baldintzak paratu nahi ditu zabalpena egiteko. Baldintza Gipuzkoako zatian ere zabalpena egitea da. Hau horrela egitea, gure ustez, funtsezko hankasartze estrategikoa izango litzateke Nafarroarentzat, eta horretaz jabe daitezenez saiatzen ari gara. Garbi izan behar dute Etxegarateko zabalpena orain egiten ez bada, geroago oso zaila izango dela, eta orduan konponbidea neketsuagoa izango dela.

NOSKI JATOR

ZVLDI ERGA

